



Jose Antonio
Uriarte
Adaro

*Euskal misiolari
eta itzultzaile*

(1812-1869)

BIDeGILEAK

Egilea:

Josu Zabaleta



JOSE ANTONIO URIARTE ADARO

(1812-1869)

Uriarteren balizko erretratua (Aitor Bolinaga margolariak sortutako irudia, 2013)

LEHEN IKASKETAK ETA URRATSAK

Jose Antonio Uriarte frantziskotarra 1812ko maiatzaren 28an jaio zen Arrigorriagako herrian, Bizkaian, Bilbotik nahiko hurbil. Aita, Domingo Uriarte, Basaurikoa zuen, eta ama, Magdalena Adaro, Arrigorriaga bertakoa. 1829ko martxoaren 20an, artean hamazazpi urte bete gabeak zituela eta latin- eta humanitate-ikasketak eginik, frantziskotar abitua jantzi zuen Bermeoko nobiziatuan. Handik, profesioa eginik, Bastidako frantziskotar komentura joan zen, Arteak eta Filosofia ikastera. 1833an Bilboko San Prudentziora bidali zuten Teologia eta Kanonak ikastera. Baina gobernuaren aginduz urte hartako bertako

azaroaren 29an hango fraidetegia desegin zelaririk, lehenengo gerra karlistan Gipuzkoan, Bizkaian eta Santanderren oraindik zabalik jarraitu zuten zortzi-bederatzi komentuetakoren batera joan zen, ikasketak jarraitzera. 1836ko irailaren 24an apaiztu zen Azpeitian, eta handik hiru urtera izendatu zuten predikari eta aitor-entzule.



Arrigorriaga,
1880

Hurrengo urtean bertan, ordea, Isabel II.a erregina izendatu ondoko gobernuak agindutako exklausuraziotik libratutako komentu guztiak gobernuaren aginduz itxi behar izan zirenean, Aita Uriartek Markinan hartu zuen bizilekua eta han egon zen urte luze-tan; berak dio, hain zuzen: «Azkeneko gerra zibila bukatu zenez gero herri honetan bizi izan naiz beti, eta neure jaioterrian adina adiskide ditut hemen». Han, apaiz bezala baina parrokiako lanetatik libre, misioak predikatzen hasi zen, eta hainbestearaino famatu zen predikari gisa non bere behinolako komentuko nagusiek, Calahorrako apezpikuaren adostasunez, elizbarrutiko herrietan zehar misioak emateko agindu baitzioten, Bizkaia aldean batez ere.



Markina-Xemeingo parrokia

Sermolari-ospe horri zor zaio, halaber, 1843 inguruan Bizkaiko Foru Diputazioa Jaureriko dokumentu ofizialak bizkaieraz jartzeko itzultzaile baten bila hasi zenean, arri-gorriagarra aukeratu izana lan horretarako, Uriartek predikatzen zuen zenbait herritako ordezkariak hala proposaturik, itxura denez.

LOUIS LUCIEN BONAPARTEREKIN ELKARLAN ESTUA

1856an egin zuen Louis Lucien Bonaparte Printzeak bere lehenengo bidaia Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara, hiru probintzia horietako euskararen lekukotasunak biltzeko asmoz. Printzeak Bilboko San Nikolasen Uriarteren sermoi bat entzun zuen, azken juizioari buruz. Sermoi hark eraginda, edo besteren batzuek aholkatuta, bere hizkuntz ikerketetan laguntzaile izateko aukeratu zuen Aita Uriarte. Printzearen lehenengo bidaia hartan bertan haren laguntzaile ibili zen, eta harrezkero gutun-truke guztiz estua eta sarria hasi zen bien artean. Berrehundik gora gutun, hamar urtean (Aita Uriarteren azkeneko bi urteetan, ge-

roz eta gaixoago zegoenez, bakantzen hasi ziren haren gutunak. Gutun horiei jarraituz zehazki eta unez une ezagutu daitezke Aita Uriarteren ibiliak eta lanak, eta oso garbi erakusten du gorputz eta arimaz ekin ziola Printzearekiko lankidetzara horri). Gutunok guztiak Bonaparte Printzeak gorde zituen, eta haren altxorretik argitaratuta ezagutu dira. Lastima da Bonaparte Printzeak Aita Uriarteri idatzitako gutunak galdu izana. Aita Uriartek Bermeoko komentutik alde egin eta Zarautza (ustez hango giroak mesede egingo ziolakoan) azkeneko bidaia-rako abiatu zenean galduko zirela uste da, fraideek itsumustuan alde egin behar izan baitzuten berriro Bermeoko komentutik.

1859 bukaera aldera berriro zabaldu zen Bermeoko frantziskotarren komentua eta



Bilbo 1850eko hamarkadan (Hennebutte Feillet, Blanche)

Aita Uriartek hurrengo urteko otsail-mar-txoan Markina utzi eta hara aldatu zen. Ez zen erabaki erraza izango, nonbait. Garai horretan Bonaparte Printzeari idatzi ziz-kion gutunetan oso kezkatuta agertzen da behin baino gehiagotan Printze harentzat egiten ari zen lanaren etorkizunaz. Alde ba-tetik behartuta sentitzen da komentura joa-tera, baina beste aldetik han lanak eginez jarraitu ahal izatea ez zitzaion batere erraza iruditzen. Une horretan idatzitako gutun batean ezin hobeto adierazten du zalantza hori: «Oraindik ez naute deitu Bermeoko komentura joateko; baina baliteke hil ho-nen bukaeran edo hurrengoaren hasieran bidaltzea abisua; “abisua” diot, inor ez baitute behartzen joatera. Nik erabakita



Bonapartek Uriarteren sermoia entzun zuen Bilboko San Nikolas parrokiari

Bermeo, XIX.
mendeko bigarren
erdialdean
(J. Passos, Vista de
Bermeo, 1885)



daukat han egin behar diren obrak bukatu bezain laster hara joatea. Hango nagusiek nik euskarara itzulpenak egiten jarraitzerik nahi ez izatea da han izan nezakeen arazorik larriena, eta ez dut uste, gainera, jarraitu ahal izango dudarik, agerian behintzat. Bigarrenik, Gipuzkoan erabiltzen diren hitzez kontsultaren bat egin behar dudanean, ez dut horretarako baliabiderik izango. [...] Nolanahi ere, joateko esaten didate-nean, komentura joan behar dut; bestela, komentura ez joateko aitzakiatzat hartuko litzateke hara ez joateko eman dezakedan edozein arrazoi, eta eskandalua ematea izango litzateke hori». Eta aurreragoko batean dio: «Orain esango banu nire euskarazko lanengatik ez dudala joan nahi komentura, erregelaren araberako bizitzara makurtu nahi ez dudalako ez naizela joaten esango lukete denek; eskandalizatu egingo lirateke, eta gorrotoz begiratuko lidakete».

Señor don Luis Luciano Bonaparte.
Marquina 2 de Noviembre de 1856.

Me apreciado Señor: he recibido en grata fecha 22 de octubre en cuya contestacion digo a V. A. que se hallan en mi poder el folleto de las obras bascongadas que mando S. A. imprimir en San Sebastian y la Gramatica bascongada de Landabal que se sirvió S. A. regalarme. Asi a S. A. las mas expresivas gracias. Todavía no he recibido la traduccion del Evangelio de San Mateo impreso en Bayona de que S. A. me habla, en el dialecto Labortano. Quedo enterado de lo que me dice sobre la traduccion en Navarro y Guipuzcoano. Lo he traducido ocho capitulos y el noveno hasta el verso 25: estoi revisando y leyendo a personas inteligentes: puede S. A. estar seguro que en breve le remi-

Uriartek Bonaparterekin gutun bidezko harreman handia izan zuen. Era horretako bi lagin agertzen dira hemen. Horietako batean Uriarteren izenpea dago


todos los bascongados. - El Señor Marques de Valdespina que actualmente se halla aqui me encarga de a S. A. expresiones. - Quedo en remitirle cuanto antes las Visitas al Santisimo: y tambien el libro de la 3.^a orden y Calvario si los puedo hallar. La novena de los Dolores de que habla a S. A. es la misma que trae el librito que remite a esa titulado: Jesus, Maria ta Lorenzen deboinioko liburuchatu alerariako deboinioko baleruec. Por el Padre Cardabenas. Por si acaso gustaria S. A. poner algunas notas a la traduccion Oiscayna, remitire luego algunas.

Con tanto queda a las ordenes de S. A. su at.º seg.º serv.º y Cap.º D. L. M. B.
Fr. Jose Antonio Uriarte

Hala ere, elkarlanean jarraitzeko baime-
nak lortzeko eta izan zitezkeen eragozpe-
nak gainditzeko hainbat modu proposa-
tzen dizkio Printzeari: Baionako, Iruñeko,
Calahorrako edo Gasteizko apezpikuen
bitartekaritza, frantziskotarren nagusi go-
renarena, Toledoko artzapezpiku kardina-
larena, frantses enbaxadorearena, Erre-
ginaren beraren agindua... Usteak ustel
aterako ziren, ordea, gehienetan.

Egia da bitarte horretan, Printzearentzat
lanean hasi zenetik berriro komentura
itzuli zen arte, askatasun handiagoa izan
zuela Aita Uriartek harekin lan egiteko,
eta zeregin horretarako egin behar zituen
joan-etorrietarako: askatasun ekonomikoa,
inoren mende egon beharrik ez izatea.
Hala misioak predikatzeari lehentasuna
emanik, gainerako denbora Bonaparte
Printzearen euskara-lanetarako eskain ze-
zakeen. Bidaia asko egin zituen alde bate-
ra eta bestera datu bila, euskalkiak hobeto
ezagutzera, Printzearekin bilerak egitera.
1858an bertan, hilabete batzuk Londre-
sen eman zituen, Bonaparteren eskariz
egindako itzulpenak inprimatzeko lane-
tan lagunduz. Urte horretako maiatzaren

bukaeratik abuztuaren azken egunetara
arte ez dago gutunik; inoiz ez da gertatzen
horrelako tarte luzerik Uriartek Printzeari
idatzi gabe; uste izatekoa da, beraz, bitarte
horretan Londresen egon zirela elkarre-
kin. Gaur egunetik begiratuta irribarrea
ateratzen digu bidaia horretarako presta-
menez Aita Uriartek egiten duen oharpe-
nak: «Zure gorentasun horrek erabakitzen
duenean, lehorrez joango naiz [...]; baina
ez duzu kezkatu behar, bidea asmatzen
jakingo dut-eta. Laikoen moduan jantzita
joango naiz, ehun beltzeko lebita batez eta
kapela biribilez...».



Uriartek
gipuzkerara
itzuli zuen lehen
lanetako bat (1858)

Bonaparte Printzeak agindutako lan horien artean, San Mateoren ebanjelioaren gipuzkerazko itzulpena zen bat. Gainerakoan nahiko itzulpen laburrak eskatzen zizkion: dotrinak, Bibliako pasarteak. Badiirudi Printzeari gustatu egin zitzaioela, zeren Biblia osoa gipuzkerara itzultzeko proposamena egin baitzion bidaia horretan. Bonaparte Printzeak Biblia euskalki literario garrantzitsuenetara itzularazteko asmoa zuen: gipuzkerara eta lapurterara. Lapurterazkoa martxan zegoen ordurako, Duvoisin kapitainari aginduta. Bonaparte Printzeak ez zuen aurkitu, ordea, Biblia gipuzkerara itzuliko zion inor, eta Aita Uriarte gogoratu zitzaion. Uriarte bizkaitarra zen, ordea, ez zuen uste horrelako lan bati heltzeko bezain ongi menderatzen zuenik gipuzkera; Printzearen erreguei erantzunez eta itzulpena Printzeak berak eta Jose Antonio Azpiazuk zuzenduko zutelako promesarekin, lanari ekin zion.

1859ko gutunetan, Bibliaren gipuzkerarako itzulpena egiten ari zenean, behin baino gehiagotan adierazten du Aita Uriartek ez dakiela egiaz lan hori onez burutzeko gai izango den, lan eskergea delako,



L.L. Bonapartek eta J.A. Uriartek harreman estua izan zuten Londresekin

alde batetik, eta bestetik gipuzkera ongi menderatzen ez duelako; ahaleginak egiten ditu, hala ere, liburuetatik ikasiz eta Printzeak gogokoen zuen Beterriko euskalkia erabiltzen zen lekuetara joanez. Hala ere, liburuak itzuliz jarraitzen du, eta Printzeari Londres bidaliz.

Behin eta berriro adierazten ditu zalantzak: «Biblia oraingoz lapurterara eta gipuzkerara itzultzeko duzun ideia hori oso ongi iruditzen zait; baina nork itzuli gipuzkerara? Gauza ona litzateke lan hori distiraz egiteko gai den itzultzaile bat edukitzea. Bibliak, itzulpenak duen lan materialaz gainera, halako zailtasunak ditu hizkuntza eta zentzua ulertzeko, halako nekeak itzulpenean ongi adierazteko, non jakintza

handia eskatzen baitu bi hizkuntzetan eta ezaguera sakona gaiari dagokionez. Horrexek beldurtzen nau ni. Hala eta guztiz ere, gipuzkoar itzultzailearik aurkitzen ez baduzu, ez naiz ahaleginak egin gabe geratuko gipuzkera beste euskalkiak baino atzerago gera ez dadin».

Horrenbestez, liburuak itzuliz jarraitzen du, eta Printze hizkuntzalariari Londresan igorritik: «Genesiaren XXVIII. kapitulutik XXXVIII. erainokoak bidaltzen dizkizut. Behin eta berriro berrikusi ditut, baina izango dituzte bizkaitarkeriaren batzuk eta beste akatsen batzuk. Zeuk zuzenduko dituzu andre Klementziaren laguntzarekin».

Bonaparte Printzeak 1859an ekin zion Bibliaren itzulpen horren argitaratzeari, Duvoisin kapitainaren lapurterarako inprimatzen hasi zen urte berean. Duvoisinen itzulpena bukatu arte argitaratu zen; Uriarterena, berriz, Bibliako lehenengo hiru liburuak kaleratuta gelditu zen. Zergatik? Baliteke testuaren zuzentzailea lan nekagarri hori egitez aspertu zelako izatea; Uriarteren eskuzko testuak, izan ere, hirugarren liburu horretaraino daude zuzenduta –gorriz–. Hala ere Uriartek Biblia

osoa bukatu arte jarraitu zuen Printzeari Bibliako gainerako liburuen itzulpenak bidaliz, itzulpena osorik burutu zuen arte.

AZKEN URTEETAKO ERAGOZPEN ETA ZAILTASUNAK

1860an berriro osatua zen Bermeoko frantziskotarren Misiolari Kolegiara itzuli zenean, Aita Uriartek lehendik zituen susmo txar asko bete ziren eta oztopo handiak izan



Aita Mariano Estarta frantziskotarren probintziaburua

zituen Bonaparte Printzearentzako lanetan jarraitzeko. Lehenik eta behin nagusien kontrakotasuna aipatzen du. Aita Mariano Estarta misio-emaile larrabetzuarra izan zen 1834ko desamortizazioaren ondoren Bermeoko Misiolarien Kolegioa berriro zabaldu –Kubarako eta Antilletarako misiolari-kolegio gisa– eta gerora Kantabriako frantziskotar probintzia osatu eta Uriarte bizi izan zen arte guztian haren nagusi izango zena. Uriartek susmoa du Estartak ez dituela begi onez ikusten Uriarteren euskarazko lanak edo euskarazko argitalpenak oro har; ez zizkion gauzak erraztuko Aita Jose Anteriori. Honela dio Uriartek berak: «Datorren Hausterre-egunerako Bermeoko komentura joango naiz eta San Frantziskoren abitua jantziko dut. Gipuzkerazko itzulpena eginez jarraitzeko arazo handiak izango ditudala uste dut, zeren komentuko nagusia, Aita Mariano Estarta, lurraldeotan misioak ematen eta bizkaieraz predikatzen luzaro aritua, euskarazko argitalpenen nahiko etsaia baita, eta aiherkunde pixka batez begiratzen dit niri, argitaratu ditudan liburuengatik». Gogorrago dio beste batean: «Nire gorazarre-sermoiak bi edo hiru liburukitan inprimatzeko asmoa baztertu egin dut, apezpiku



Bermeo, XIX. mendearen erdi aldera
(Francisco de Paula Mellado, 1862)

jaunaren baimena lortu ondoren, Aita Estartaren lainezagatik...». Beste batzuetan, ordea, berak itzultako zenbait liburu Aita Estarta horixe zuzentzen ari dela esaten du.

Eta berehalaxe aurkitzen da bestelako lanez gainezka: «Harrituko zinen luzaro isilik egon naizelako eta gipuzkerazko itzulpenik bidali ez dizudalako; hona zergatik izan den: nire nagusiek misiolari berrientzat bizkaieraz misio oso bat prestatzeko agindu didate. Misioak 15 doktrina eta 15 sermoi, ordu bete bana ingurukoak, izaten dituenek, ezin izan dut gipuzkerazko itzulpenean lan egin».

Garai horretatik aurrera etengabe agertuko dira Uriarteren gutunetan antzeko kexuak:

lana, berekiko susmo txarrak, zama berriak («Orain profesu gazteei matematika eta etika irakasten ari natzaie, irakasleek alde egin dute-eta». Eta geroago: «Komentu honetako nobizioei eta profesatu berriei euskara irakasten dihardut [...]. Markinako euskara, Bizkaiko aldaerak eta Gipuzkoakoak eta Frantziako euskalkien berri pixka bat azaltzen diet»). Hala ere Aita Uriartek ez zuen amore ematen, eta nekerik gabe jarraitu zuen bere itzulpen-lanak egiten.

Hala ere, 1862ko maiatzean Londresen da berriro, hilabete batzuetarako, Bibliaren itzulpena aurreratzeko.

1865 bukaerarako Testamentu Zaharraren itzulpena burututa zeukan: «Bukatu dut Testamentu Zaharra gipuzkerara itzultzea» jakinarazten dio Bermeotik Printzeari 1865eko urriaren 17an eta berriro hurrengo azaroaren 25ean. 1867 hasieran Printzeari idazten dio esanez: «Bukatuta daukat Biblia Santuaren euskararako itzulpena, Gipuzkoako euskalkira. Kopia bat egiten ari naiz, itzulpeneko letra irakurtzeko zaila da-eta...».

Ordurako, ordea, gaitzak jota dago: «Zenbait hilabetez burutik eta urdailetik na-



Markina alde, 1880. Bermeoko nobizioei, beste aldaera batzuen artean, Markinakoa ere irakasten zien Uriartek (*El oasis: viaje al país de los fueros*)

hastuxea ibili naiz; sendatu naiz, baina ez osorik, ondorioak geratzen zaizkit-eta». Hurrengo batean hobeto zehazten du gaitza: «Buruko odol-kolpe handi bat, burutik gerriraino [...]. Buru barruan dut, nonbait, gaitza: itsasoko bainuak hartu ditut eta eskuineko eskua eta hanka gogortu zaizkit. Idazteko letran ere antz emango zenidan». Hobeto sendatzeko, nonbait, Errioxako Donemiliagako komentu zabaldu berrira bidali zuten «eta hilabetez ezin izan dut itzulpenik egin». Hala ere herrietan misioak predikatzen jarraitzen zuen. Garai honetatik aurrerako ia gutun guztietan aipatzen du, era batera edo bestera, bere osasun egoera.

Gaixotasunak gorabehera, Printzearentzat itzulpenak eta bestelako lanak egiten jarraitzen du, ezkutuan bada ere: «Azken



Donemiliagako beheko komentua Errioxan

aldi honetan osasun-gorabehera handiak izan ditudanez, sendagileek eta nagusiek debekatu egin didate lanik egitea; horregatik ezkutuka eta isilean egin behar ditut itzulpenak eta ezingo ditut nahi bezain bizkor burutu», idazten dio Klaudio Otaegi, une hartan gaixo zegoen Printzearen koinatu eta bitartekariari.

1868ko urtarrilaren 25ean bidali zizkion Uriartek Bibliaren itzulpenaren azkeneko lanak (liburu ez kanonikoak) Bonaparteri. Aita Jose Antonioren gaixotasuna geroz eta larriagoa zen. 1869ko urte-hasieran Zarauzko komentu zabaldu berrira eraman zuten, eta hantxe hil zen 1869ko urtarrilaren 20an, 56 urterekin.



Zarauzko frantziskotarren komentuan hil zen J.A. Uriarte 1869an

A. Uriarteren heriotzaren ondoren izan ziren gertaerek ez zuten batere lagundu haren obra ezagutarazteko eta argitaratzeko. 1868ko irailean Isabel II.a erregetzatik kendu zuten eta Frantzian erbesteratu zen. 1970ean Napoleon III.a Frantziakoa, Sedango guduaren ondoren, tronutik kendu zuten. Bonaparte Printzea ordu arte zuen pentsiorik gabe aurkitu zen; haren argitalpen-asmoak bertan behera geratu ziren; eta horregatik Uriarteren lanak kaleratu gabe gelditu ziren gehienak. R. M. Azkuek, bere hiztegi handia egiteko Londresa Printzearen eskuizkribuak ikustera joanik, egin zituen gestioei esker, Uriarteren manuskripto gehienak, Bibliaren itzulpenak, gutunak eta abar, Euskal Herrira ekarri ziren.



Louis Lucien Bonaparteren lan-irizpideak

Bonaparte Printzea hizkuntzalari eta euskalari handia

Bonaparteren ikerketen interes nagusia dialektologia konparatua izan zen, ez euskararen eremuan bakarrik: italiararen dialektologian eta, batez ere, ingeles dialektologian ere aritu zen. 1873ko ekainaren 20an, adibidez, Londresko Filologia Elkartearen *Classification des dialectes anglais modernes, accompagnée d'une carte indiquant les principaux dialectes anglais* aurkeztu zuen, Printzeak berak tokiz toki bildutako informazioan oinarrituta; euskalkien maparen pare-parekoa, eta metodologia berbera erabiliz egina. Ingeles dialektoen lehenengo sailkapena izan zen. Horretarako, geroago euskal dialekto-

logia-lanetarako egin zuen bezala, 1850 ingururako hasia zen Bibliako zenbait pertsonek ingeles dialekto desberdinetarako itzulpenak eskatzen.

Bonaparte Printzeak hizkuntzalaritzan eta dialektologian egin zituen lanen artean, hala ere, euskararen alorrean egin zituenak dira garrantzitsuenak eta denboraz eta tamainaz handienak, luzeenak eta zabalenak. Metodo zientifiko batez baliatu nahi izan zuen lan horietarako. Ingeleseko dialektologia-lanetan bezala, aditzaren azterketan, aditz-formen konparaketan oinarritzen zen dialektoen mugak definitzeko eta zehazte-

ko; Aita Uriartek bidalitako gutun askotan aipatzen dira leku bateko eta besteko aditz-formen desberdintasunak. Aditz-formez gainera, leku batetik bestera, dialekto batetik bestera ikusten diren fonetika-joeren eta -arauen desberdintasunak ere oso kontuan hartzekoak dira Louis Lucientzat, bai ingeles dialektoez egiten dituen azterketetan bai euskalkiei buruzkoetan. Egia da bere garaiko tresneriak eta baliabideek ez ziotela aukera askorik ematen fonetikazko azterketak egiteko, eta bere oharpenez eta bere lankide hurbilenekoenez baliatu behar zuela horretarako. Uriartek Printzeari bidalitako gutunetan, euskalkien berezitasunez diharduenean, askotan aipatzen dira, esate baterako, «eufoniak», esan bezalako transkripzioak baizik ez direnak.

Egia da euskalkien edo dialektoen arteko bereizkuntzetan oinarritutako sailkapenak egiteko jarduera honetan, itzuri ezinezko tentazioa izaten dela desberdintasunei neurritz goitiko garrantzia ematea, dialektoen arteko mugak nabarmenago gera daitezen; mapetan marra zehatzak marraztu behar baitira, izan ere, ez orban lausoak. Horixe zen garai hartako dialektologiaren joera. Bonaparte Prin-

tzearen mapei ere askotan salatu izan zaie akats hori, eta ez funtsik batere gabe, nahiz eta Printzeak berak behin baino gehiagotan esaten duen dialektoen arteko mugak ez direla zehatzak: «Mapetan dialektoen “gutxi gorabeherako mugak” adierazten dira [...]. Ezinezkoa da ingeles dialektoen muga zehatzak definitzea», dio berak ingeles dialektoen mapari buruz. Joera honek, ordea, eragin handia izan zuen Uriarteren zenbait lanetan, geroago ikusiko dugun bezala.



J. Frantzisko Aizkibel (1798-1864) hiztegitilea

Euskarazko dialektologiaren eremuan egin zuen lan guztia bideratzeko, bost egonaldi egin zituen Bonaparte Printzeak Euskal Herrian, 1856-1869 bitartean. Egonaldi horietan bidaiak egiten zituen Euskal Herriko eskualdeetan zehar, leku bakoitzeko euskararen egoera eta ezaugarriak bertatik ezagutzeko. Lehenengo bidaiari bertan, bere laguntzaile izango zirenen talde bat antolatu zuen: Jean Pierre Duvoisin kapitaina, Aita Jose Antonio Uriarte frantziskotarra, Klaudio Otaegi maisua, Emmanuel Intxauspe kalonjea, M. Salaberry, Bruno Etxenike, Casenave apaiza, Jose Antonio Azpiazu, Aizkibel hiztegiaren familiakoa eta J. I. Iztuetaren suhia, Aita Juan Eloi Udabe, Mariano Mendigatxa, Prudentzio Hualde, Aita Jose Samper, Ibarregarai apaiza, Pedro Jose Minondo eta Martin Elizondo izan ziren partaide garrantzitsuenak. Hauei guztiei bere metodologia eta irizpideak irakatsi zizkien. Horrez gainera, askotan elkarren lanen berri ematen zien, argitaratu ere baino lehen; Uriartek, esate baterako, behin baino gehiagotan aipatzen eta kritikatzin dituen onerako zein txarrerako— beste lankideen itzulpenak.



Bruno Etxenike Bonaparte Printzearen beste lankide garrantzitsu bat

Bonaparte Printzeak euskal dialektologiari buruz argitaratu zituen lan nagusiak, aipatutako mapaz gainera, *Le Verbe basque en tableaux* (Londres, 1869) eta *Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko euskalkieiei dagozkien osagarriak* izan ziren. Aldizkari espezializatuetan ere artikulu asko argitaratu zituen.

Lan hori guztia, bere begiz egindako behaketetan eta laguntzaileek bidalitako oharretan ez ezik, testu-corpus handi batean oinarritzen da. Corpus horretan era asko-

tako testuak sartzen dira: han eta hemen bildutako liburuak, dotrinak, agiriak, bertso-paperak. Baina testu alderagarriez osatua da zati nagusia: Bonaparte Printzeak berak agindu eta irizpide berberetan oinarrituta, jatorrizko testu berberetatik euskalki desberdinetara egindako itzulpenak: Biblia osoak, Bibliako pasarte aukeratuak, beste liburu batzuk (Iturriagaren *Jolasak*, esate baterako), Asteteren dotrinak..., esaldiak parez pare jarri eta testuen arteko desberdintasunak erraz atzemateko moduan ipinita, Origines haren «hexapla» ospetsuen antzera.

Lan-egitura edo ia «enpresa» horretan lan egin zuen Aita Uriartek bere bizitzako azkeneko ia hamabi urteetan.

Batetik, Printzeak bere lankide-sarea bezala, Uriartek ere bere laguntzaileak bilatzen zituen. Lau lan motatarako baliatu zen batez ere lankide horiez:

- Bonaparte Printzearentzako itzulpen-lanak egiteko.
- Euskalkiei buruzko osagarritzko informazioa jasotzeko.

- Euskarazko argitalpenak (dotrina zaharrak, bertso-paperak, liburuak) bilatzeko.
- Bere euskararen ezagutza gehiago lantzeko, gipuzkerari zegokionean batez ere, Uriartek askotan esaten baitu ez dela seguru sentitzen gipuzkerari buruz duen prestakuntzarekin, eta laguntzaileak bilatzen dituela horretan hobetzeko.



Uriarteren obra baten azken edizioa eta ikerketa (2012)



Aita Jose Antonio Uriarteren euskarazko lanak

Agustin Pascual Iturriaga idazle eta pedagogo


Bi multzo handi bereizi behar dira Aita Jose Antonio Uriarteren euskarazko lanetan: alde batetik Bonaparte Printzearentzat egindakoak, gehienak, eta beste alde batetik, zaku zabal batean, bestelakoak.

BIBLIAREN GIPUZKERAZKO ITZULPENA

Uriartek Bonaparterentzat egindako lanen artean multzorik handiena itzulpenei dago-kiena da, Bibliako pasarteen euskarapene-na batez ere. Beste itzulpen batzuk ere egin

zituena, Uriarteren lanen zerrendan ikusiko den bezala (Iturriagaren *Jolasak*, Asteteren dotrina, eta abar), baina Bibliaren gipuzkerako itzulpena da Uriarte gehien famatu duena eta baditu zenbait ezaugarri, gainerakoek ere neurri batean edo bestean betetzen dituztenak eta bereziki aipatzea merezi dutenak.

Lehenik eta behin, Uriartek latinezko vulgatatik egiten zituen itzulpenak, lagungarri gisa Felipe Scio de San Miguel-ek moldatutako gaztelaniazko bertsioa erabiliz. Scio-ren itzulpena oso literala da, vulgatako testuari oso lotua, baina era askotako oharrez eta jakingarriz oso aberastua.



Uriartek ere antzeko irizpidea hartuko du. «Oinarri hauei lotuz egiten dut itzulpena: 1. Literala, ahal den guztian; 2. Jatorrizkoaren hitzen zentzua gordez; 3. Ahal delarik latinezko jatorrizkoaren hitz-hurrenkera berari jarraituz; 4. Zalantzaren bat dudanean A. Scioren itzulpenean begiratu.» Beste batean areago esaten du: «Itzulpen leiala, literala eta latinezko jatorrizkoaren hitz-hurrenkerari egokitua nahi izan dut egin, batzuetan euskararen sena ere sakrifikatuz, A. Sciok bezala». Zenbaitetan muturreraino eramaten du jatorrizko testuari lotu nahi hori; hala gutun batean esaten du: «Oso literala da; ahal den guztian latinezko testuaren hitzen ordenari jarraitzen diot... eta latinez adina hitz jartzen ditut euskaraz. Horregatik “dicunt illis” “esaten deutse” itzultzen dut, eta ez “dirautse”, hura bezain ongi egongo balitzateke ere».

Bonaparte Printzeak Biblia osoa Gipuzkoako euskalkira itzultzeko eskatu zion frantziskotar bizkaitarrari, Beterriko euskarara hain zuzen ere. Beharkizun horrek bere testuak bizkaieratik nabarmen bereiztera behartu zuen, eta Gipuzkoan eta Bizkaian erabiltzen ziren hitzen artean auke-

ratu behar zuenean, lapurterara ere jotzen zuen zenbaitetan, bizkaieratik urruntzeko. Hala dio, esate baterako: «Anitz: “Asko” ez erabiltzeagatik aukeratu dut: Iztuetak ere erabiltzen du». Edo «“Bizitu, izandu, aundia” eta beste asko erabiltzen ditut, bizkaieratik bereizteko, “bizi, izan, andia” ere esan daitezkeen arren».


Gipuzkoako, bereziki Beterriko, euskalkiaz jabetzeko hainbat bisita egiten ditu Hernani, Astigarraga, Zarautz eta beste zenbait herritara. Eta eredu bat aukeratzen du, Bonaparte Printzearekin adosturik: F. I. Lardizabal eta J. B. Agirre Asteasukoaren arteko eredu bat, Lardizabal bera goierri-tarra izanagatik ere. «Erabaki dut –dio–. Lardizabali jarraituko diot aditzari eta hitz batzuei dagokienean, baina hitz gehienetan Agirreri, aditz laguntzaileari dagokionean salbu.»

Zenbaitetan testu beraren –Bibliako pasarteak zein bestelakoak– bi kopia bidaltzen zizkion Printzeari: bata idazkera arruntean eta bestea mintzatuaren ahalik eta transkribapen hurbilena –«eufonikoak»– eginez, edo horretarako oharrak eginez, Printzeak fonetika-lanetarako erabil zitzen.



Frantzisko Ignazio Lardizabal apaiza,
hizkuntzalaria eta euskal idazlea

Bibliaren eta Bibliako pasarteen itzulpenetan Bonapartek bere lankideekin izan zuen arazotxo bat oharrei zegokiena izan zen. Eliza katolikoak ez zuen uzten Bibliaren itzulpenak oharrik gabe inprimatzen, protestanteen propagandarako erabiliko ziren beldurrez, batez ere. Bonaparte Printzeak agindutako itzulpenak ikerketa filologikoe-tarako erabiltzekoak ziren, baina hala ere... Uriartek behin baino gehiagotan erregutu zion Printzeari Bibliaren itzulpenak oharrak



Emmanuel Intxauspe apaiza eta itzultzailea

jarriz argitaratzeko. Hala dio: «Indizeko Kongregazio Sakratuaren 1737ko uztailaren 19ko aginduaren arabera, Espainian ez dira irakurri nahi izaten oharrik ez duten herriko hizkuntzarako Bibliaren itzulpenak. Horregatik banaka batzuk jarri ditut, liburuaren bukaeran sartzeko». Inoiz ez zuen lortu. Badiudi arazo horixe izan zela Bonaparteren beste laguntzaile batek, E. Intxauspe Baionako kalonje zuberotarrak, harekiko lanak uzteko arrazoietakoa bat.


Itzulpenaren beharkizun hauek guztiek oso estu lotzen zuten Uriarteren lana. Garbi ikusten zuen zenbateraino mugatzen zuten itzulpenak eta kontuan hartu beharreko itzulpen-irizpideek, bereziki. Bere itzulpena eta Lardizabalen «Testamentu zar eta berri-co condaira» moldapena alderatzen ditu: «Haren estilo loretsu, libre eta dotorea ezin erabil daiteke nirea bezalako itzulpen literal, lotu, bibliko batean. Irakur bedi A. Scioren gaztelaniarako itzulpena, eta berehalaxe ikusiko da gaztelera latinari menderaturik, bere dotorezia erakutsi ezinik. Horixe da nik hartu dudana metodoa».

BONAPARTE PRINTZEARENTZAKO GAINERAKO LANAK

Lehenik eta behin, Uriartek Bibliaren gipuzkerarako itzulpenaz gainera, beste itzulpen asko egin zituen: Bibliako parte soilak, dotrinak, bestelako testuak, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalki eta azpieuskalkietara, goian aipatu diren irizpideei jarraituz.

Horrez gainera, euskalkiei buruzko informazioa biltzen aritu zen Bonaparte Printzearen euskal dialektoen maparako. Batzuetan herrietan ematen zituen misioek horretarako uzten zioten asti apurtxoaz baliatzen zen (misioek hamabost egun irauten zuten normalean, baina nahiko nekagarriak izaten ziren misiolariantzat, egunean bi orduko sermoiak bota behar izaten baitzituzten, beren otoitzak egin eta gainerako denbora gehiena aitorlekuan igarotzen zuten); inoiz herrietara berariaz hartara joanda; eta beste batzuetan aurkitzen zituen lekukoez baliatuz.

Hala esaten du, adibidez, 1859ko apirilaren 28ko gutunean: «Aurki, daukadan lehenengo aukeran, Mutriku, Deba eta Deba ibaiaren ertzetan dauden herri guztien euskararen azterketa bat egitera joango naiz, eta emaitzak bidaliko dizkizut». Edo «arreta handiz aztertu dut, herrietara joanda, Mutrikutik eta Debatik hasi eta Antzuola, Oñati eta Gatzagarainoko herri guztietako euskara, Elgeta eta Eibarkoa ere bai, eta Mutriku, Deba, Mendaro eta Alzola gipuzkeraren eremuan, eta Elgoibar, Eibar, Elgeta, Antzuola, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Ga-



L.L. Bonaparteri euskalkien mapa osatzeko ongi etorri zitzaizkion Uriarteren ekarpenak

tzaga bizkaieraren eremuan sartu behar direla egiaztatu dut».

Bonaparte Printzeak Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalki eta azpieuskalkien sailkapenerako erabili zuen informazioaren parte handi bat Aita Uriartek bidalia da. Hari esker dakigu, esate baterako, Bilbo inguruko zein herri eta auzotan eta zenbateraino erabiltzen zen euskara: «Berariaz joanda egon naiz Barakaldon, eta ikusi dut

Landaburu eta Beurio auzoetan asko hitz egiten dela euskaraz; San Bizentekoan ere bai zertxobait; baina Retuertan eta gainekoetan oso gutxi. Neuk hitz egin dut jende askorekin euskaraz. Gazteek normalean gaztelaniaz hitz egiten dutenez, hizkuntza hori da nagusi», dio, esate baterako, 1866ko apirilaren 23ko gutunean.

Edo Elosuko euskarari buruz: «Oraindik aspaldi ez dela neu joan nintzen Azkoititik

Bergarara Elosutik igaroz; han baserritar batzuekin hitz egin nuen; dudarik ez dut eliza inguruko baserrietan eta Azkoitia eta Urretxu aldeko mendi-maldakoetan, herri osoan edo gehienez beraz, gipuzkeraz egiten dela. Bergara aldera daudenetan –gutxi dira– jotzen dute zerbait Bergarako euskalkirantz».

A. Uriartek Bonaparte Printzeari bidalitako gutunetan 120 herri eta auzoren izenak aipatzen dira, gehienak era horretako datuekin lotuta.

Bonaparte Printzearen corpuserako biltzeko lekukotasunen artean, itzulpenez eta oharpezez gainera, han eta hemen batu zitezkeen testu idatziak ere sartzen ziren. A. Uriarte lehendik zen, inondik ere, era guztietako liburuak eta paperak bildu eta jaso zalea, zeren behin baino gehiagotan bidaltzen baitizkio Printzeari bere altxorretik ateratako idatziak. Beste batzuetan, berriz, bere ibilietan aurkitutako izkribuak helarazten dizkio, eta zenbaitetan bilaketa luzeak egin behar ditu badela jakin baina aurkitzen ez duen lanen baten arrastoari jarraitzeko. Hala idazten dio, esate baterako, 1857ko abuztuaren 23an: «Neurez ahaleginak egin eta herri askotan ja-

kinarazi arren, ezin dut aurkitu *Errosario edo Coroa Santua* liburutxo». Aurrerago topatu eta igorriko zion. Kardaberaz bizkaierazko dotrinak, hala ere, lan handiagoak eman zizkion: «Inguruotako baserri guztiak miatu ditut»; «inguruotako elizgizon guztiak jarri ditut bila», eta azkenean «Bolibarko elizateko urruneko baserri batean aurkitu dugu».

Liburu eta aldizkari argitaratu berriak ere bidaltzen edo bidalarazten zizkion.



Jose Antonio Uriarte itzultzailea (Aitor Bolinaga margolariak sortutako irudia, 2013)

BESTELAKO LANAK

A. Uriarteren euskarazko ahaleginak ez ziren ez hasi ez amaitu Bonaparte Printzearentzat egin zituen lanekin.

Itzulpenei dagokienez, orain arte aipatu ditugunez gainera, beste batzuk ere egin zituen, A. Uriarteren lanen zerrendan zehazten diren batzuk, besteren artean. Horien artean aipamen berezia merezi dute Bizkaiko Biltzar Nagusientzat hainbat urtez egin eta gaur egun zinez interesgarriak izango liratekeen itzulpenak. Pasarte batean honako hau dio: «badira 24 urtetik gora Diputazioari bere euskarazko lan guztiak eta gehiago itzulzen dizkiodala, eta inoiz ez didate eskertu. Gehiago ez egitea erabakitzen dut, baina beti aurkitzen dute eskatzen didatena ukatu ezin diodan norbait. Orain dena ordainduko didatela esaten didate, baina ez dut uste. Bi urtez behin oso hitzaldi zailak itzuli behar izaten dira Biltzarretan». Hori egia balitz, Uriarte litzateke euskal administrazioek izan duten lehenengo itzultzaileetako bat; badakigu Bizenta Moglek ere egin zituela batzuk.

Argitalpen-bultzatzaile ere aritu zen zenbait aldiz. Bere sermoi-bilduma bat



Uriartek egindako bilduma, 1987an argitaratua

argitaratzeko saioak behin eta berriro egin zituen, baina ez zen bere lanen argitalpenetara mugatu. Bere lanak kaleratzeko baino ahalegin handiagoak egin zituen besterenak argitaratzeko. Hala, Mogelen *Peru Abarka* inprimatzeko, Pablo Astarloaren *Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua* (Bizkaiko Biltzar Nagusientzat txosten bat egin zuen liburu hori argitaratzeko gomendatuz), Novia Salcedoren *Hiztegia*. Olerki- eta ipuin-bilduma bat ere moldatu zuen, argitaratzeko asmoz inondik ere: «Poesía Bascongada. Dialecto Vizcaíno»; olerki batzuek egileen izenak dituzte, beste batzuek ez, Uriarterenak berarenak izan litezkeela uste da.

AITA J. A. URIARTEREN LAN ARGITARATUEN ZERRENDA, ARGITALPEN URTEAREN ARABERA


1850: *Marijaren illa edo Maijatzeco illa*, Markinako bizkaieraz. Bilbo. 1885ean berriro inprimatu zen.

1856: *Jesus Sacramentaduari eta Ama Doncella Mariari visitaac*, Bilbao. San Alfonso Ligorioren liburuaren itzulpena. Markinako bizkaieraz. 1873an berriro argitaratu zen.

Bonaparte Printzearentzat lan egiten hasi zenez geroztik, A. Uriarteren lan asko argitaratu zituen hark, banaka edo beste lankide batzuen itzulpenekin batera. Hona garrantzitsuenak:

1857: Iturriagaren *Jolasak*. Londres. Gerroago *Berbaldiak*. *Iturriaga'ren jolasak Bizkaiko euskeraz* izenburupean argitaratua. *Euskal Esnalea*, Donostia, 1914.

1857: *San Mateoren ebanjelioa*, bizkaieraz. Londres.





Marijaren illaren
bigarren edizioa
(1885)



Jesus Sacramentaduari
eta *Ama Doncella*
Mariari visitaac
itzulpenaren lehen
edizioa



Salomonen kantiken kantikaren itzulpenaren azala eta adibide bat



San Juanen Apokalipsia gipuzkeraz (1858)

1857: *El Apocalipsis del apóstol S. Juan*, bizkaieraz. Londres.

1858: *Canticum canticorum Salomonis: tribus vasconicae linguae dialectis in Hispania vigentibus versum* (Kantiken kantika Espainian erabiltzen diren hiru euskalkitara –gipuzkerara eta bizkaieraren bi azpieuskalkitara– itzulia). Londres.

1858: *El Evangelio según San Mateo*, gipuzkeraz. Londres.

1858: *El Apocalipsis del apóstol S. Juan*, gipuzkeraz. Londres.

1859: *Biblia edo Testamentu zar eta berria José Antonio de Uriartec latinezco Vulgatic lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia*, gipuzkeraz. Testamentu Zaharreko lehenengo hiru liburuak baizik ez ziren argitaratu, A. Uriartek azkenerako liburu guztiak itzuli arren.

1862: Kristau dotrina, Markina, Bermeo, Arratia, Bizkaia erdialdeko eta Otxandioko euskalkietara itzulia. Londres.

1862: *Mariya Jaungoicuaren amac bere viyotz guztiz santu eta garbico cofradiyan sarturic dagozanai eta cristiñau guztiyai emoten deu-*

Itzulpen honen
bigarren edizioa
(1901)



tsezan iracatsi ta consejuac, bizkaieraz, Bil-
bao. Cosme Damian de Laraudo alonsotegi-
tarraren *Enseñanzas y Consejos de la madre
de Dios a los Cofrades de su Corazón Santí-
simo è Inmaculado* liburuaren itzulpena da.
1901ean berriro inprimatu zen.

Manterolaren *Cancioneroan* bizkaierazko
fabulak argitaratu ziren. *Euskal Erria* aldiz-
karian Pio IX.a aita santuaren *Ineffabilis*
bulda, agertu zen gipuzkeraz (1885).

Baina *Ineffabilis* buldaren beste euskalkie-
tarako itzulpenak bezala (bizkaierazkoa,

Arabako eta Nafarroako euskalkietara),
beste lan asko ere argitaratu gabe geratu
ziren: Bibliaren zati gehienak, Asteteren
dotrina Bizkaiko zenbait azpieuskalkitara
(Orozko, Plentzia, Arrigorriaga,...), edo
Bizkaiko Biltzar Nagusientzat hainbat ur-
tez egin zituen itzulpenak.

Gauza bera gertatu zen hainbeste aldiz ar-
gitaratu nahi izan zituen bere sermoi ba-
tzuekin ere.

Dena laburtzeko, beraz, bere garaiko jakin-
tsu nekaezin baten lana erakusten digu A.
Uriartek. Gizon ikasia, zalantzarik gabe,
inoiz baztertu ez zuen ikertzeko lehia baten
fruitu. Bere garaiak eta eskatu zioten lana-
ren baldintzek mugatua, gorago esan bezala;
euskalkien arteko desberdintasunak neurritz
goitik azpimarratzen tematua, beharbada.
Itzultzailea, beste ezer baino gehiago, gu-
reganaino iritsi zaizkigun lanak kontuan
hartzen baditugu. Hego Euskal Herriko
euskalkietara Biblia osoa lehenengo aldiz
itzuli zuena. Itzulpenak ez diren lan gutxi
iritsi zaizkigu: fabulak eta olerkiren batzuk.
A. Uriartek bere estiloa askatasunik han-
dienaz erakusteko aukera izan zuen lanak,
Sermoiak, galdu egin dira, tamalez.

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Zarauzko frantziskotarrei
- Zarauzko Sanz Enea kultura etxeari
- Joseba Etxeberria Arantzazuko liburuzainari
- Aitor Bolinaga margolariari (lehen orriko irudiaren egilea)

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
ISBN: 978-84-457-3325-7 (Lan osoarena)
978-84-457-3327-1
L.G.: VI 860/2013



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA